



Arartekoaren 2020R-2214-19 Ebazpena, 2020ko maiatzaren 8koa. Horren bidez, Haurreskolak Partzuergoari gomendatu zaio administrazio langileen eta teknikarien lan-poltsa bat irekitzeko prozesuan aurkeztutako hautagaitza baten baztertea berrikusteko.

Aurrekariak

1. 2019ko otsailean, Haurreskolak Partzuergoak kudeaketa langileen zerrendak ireki zituen plaza hutsak betetzeko eta aldi baterako ordezkapenak egiteko.

Zerrenda horietan egon nahi zuen pertsona batek, uste zuen deialdiko baldintzak betetzen zituela, eta ondorioz, prozesuan parte hartzeko eskaria aurkeztu zuen.

Hala ere, bere hautagaitza baztertu egin zuten onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko eta behin betiko argitalpen izapidetzeetan, eskatutako euskararen hizkuntza eskakizunak betetzen ez zituelako. Beraz, erreklamazioa eta gora jotzeko errekurtsioa jarri zituen, eta azken hori Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordeak 2019ko urriaren 7an emandako ebazpenaren bitartez ezetsi zuten. Horregatik, erakunde honetara jo du.

2. Kexa izapidetzea onartu ondoren, Arartekoak Partzuergoaren kudeatzailletzan jardun zuen, hurrengo gogoetetan adieraziko diren balorazioak azaltzeko. Horren guztiaren ondorioz, erakunde honek esku-hartzeko eskatu zuen, eta kexagileak jarritako gora jotzeko errekurtsioa ezesten zuen ebazpena berrikusteko aukera proposatu zuen.
3. Hasitako jarduketaren esparruan, Haurreskolak Partzuergoko kudeatzailletzak, nahiz eta hurrengo deialdietarako oinarriak idazteko modua aldatzeko aukera aztertu daitekeela onartu, adierazi zuen une honetan ez dela posible ebazpena berrikustea, ez bakarrik uste dutelako ebazpena bat datorrela deialdiaren oinarriekin eta prozedurazko irregulartasunik ez dagoela, baizik eta ebazpen berrikusiz gero (irmoa eta baimendua dela berretsiz), babes juridikorik izango ez lukeela uste dutelako.

Gogoetak

1. Lehenengo aurrekarian aipatu den moduan, 2019ko urtarrilean Haurreskolak Partzuergoak aurretiazko akordioa egin zuen sindikatuetakako ordezkariekin, eta horren bidez, kudeaketa langileen lanpostu hutsak betetzeko eta aldi baterako ordezkapenak egiteko zerrendak irekitzea erabaki zen.
2. Deialdian zehaztu ziren hautagaiek zerrendetan parte hartzeko bete beharreko baldintzak, eta horien artean zegoen euskara maila egiaztatzeko betekizuna.





3. Horri dagokionez, hauxe zegoen jasota deialdiaren 2.3. atalean hitzez hitz:

“Euskara titulua: Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C-1 maila, Hezkuntzako 2. Hizkuntza eskakizuna, EGA edo horien baliokideren bat izatea (informazio gehiago nahi izanez gero, ikus apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, 74 zenbakiko EHAA, 2012ko apirilaren 16koa eta azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua, 219 zenbakiko EHAA, 2010ko azaroaren 15ekoa).

Euskara titulua konpultsatutako fotokopia bidez egiaztatuko da, edo, parekatzeko, kopia bat eta haren jatorriko dokumentua aurkeztu beharko da.”

4. Azpimarratu behar da erakunde honetan kexa aurkeztu duen pertsonak, zerrendetan onartua izateko eskaria formalizatu zuenean, ziurtagiri akademiko ofiziala aurkeztu zuela, eta ziurtagiri horretako goiburuan Hezkuntza Saila eta Hizkuntza Eskola Ofiziala agertzen zirela, hala, ziurtagirian jasota zegoelarik baita ere, 2017-2018 ikasturtean euskararen C-1 gaitasun mailan “gai” kalifikazioa jaso zuela. Dokumentu horretan gainera, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa autentikotasuna eta edukia egiaztatzeko kodea zegoen.

5. Deialdian adierazten den Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren (azaroaren 15eko EHAAn argitaratutakoan) 4. artikuluan egiaztatzen da horrelako kasuetan, Hizkuntza Eskola Ofizialetan egindako euskara ikasketak, euskara ezagutzak egiaztatzeko tituluekin eta ziurtagiriekin baliozkotzen direla modu honetan:

“3.- Dekretu honetako 3.3 artikuluan jasotako titulu eta ziurtagiriekin baliokidetu daude (...)Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetan egindako ikasketak egiaztatzen dituen menderatze operatibo eraginkorreko Gaitasun Maila (C1) (otsailaren 24ko 46/2009 Dekretua, araubide bereziko hizkuntzen ikasketak eta ikasketa horien oinarritzko, tarteko, aurreratu eta gaitasun mailetak curriculumaz ezartzen dituenak), eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren C-1 mailarekin bat Hizkuntza Eskola Ofizialetan egindako ikasketak egiaztatzen dituzten bestelako ziurtagiriak.”

6. Horrez gain, Dekretu beraren azken xedapenetako lehenengoan jasota dago euskararen titulu eta ziurtagirietarako erregistro bateratua sortzea, eta aurreikuspen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua (ETZEB) sortu eta arautzeko urriaren 16ko 222/2012 Dekretuaren bidez egikaritu zen.

Azken Dekretu horren 1.3. artikuluan jasota dagoen moduan, ETZEB doako zerbitzu publikoa da, dekretu horren eragin eremuko herri administrazio, entitate, zuzenbide pribatuko ente publiko eta erakundeei nahiz herritarrei pertsonak duten euskararen ezagutza mailari buruzko informazio ofiziala eskaintzen diena, egiaztatuta dituzten titulu eta ziurtagiri ezberdinak oinarri hartuta. Hori guztia, besteak beste Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta beste sail eta erakunde batzuk kudeatutako erregistroetan dauden datuak oinarri hartuz, eta erakunde horiek dira era berean, ETZEB-ra bidaltzen diren datuak zuzentzen direla bermatu behar duten arduradunak.





7. Erregistro horri berriaz agindutako funtzioetako bat da (4.2. b artikulua) herri administrazio, entitate, zuzenbide pribatuko ente publiko edo erakunde horiek deitutako hautaketa prozesuetan eta lanpostuak betetzeko prozesuetan parte hartzen ari diren pertsonak lortu dituzten euskararen ezagutzaren egiaztapenei buruzko informazioa ematea, deialdi horietan euskararen ezagutza maila bat egiaztatzea baldintza edo meritu baloragarria denean. Hala ere, kasu horietan, beharrezkoa izango da prozesuan parte hartzen duten pertsonak baimen garbia ematea deialdia egin duen erakundeari, ETZEB-n kontsulta bat egin dezan.

Erakunde honen iritziz, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.1 d) artikuluekin guztiz bat datorren aurreikuspena da. Artikulu horren bitartez, administrazio prozeduretako interesdunek eskubidea dute administrazio publikoetan dauden edo administrazio publikoek sortu dituzten datuak edo dokumentuak ez aurkezteko, eta beraz, aurrerantzean, partzuergoak hori kontuan hartu beharko luke, euskararen ezagutza egiaztatzea inguruabar garrantzitsua den etorkizuneko hautaketa prozesuak izapidetzean.

8. Baina jorratzen ari garen kasua aztertuz, adierazi behar da kexagileak erakunde honetan ETZEB ziurtagiri bat aurkeztu duela, eta bertan jasotzen da Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C1 mailarekin baliokidea den Hizkuntza Eskola Ofizialeko ziurtagiri bat duela, 2018ko ekainaren 15etik indarrean dagoena. Ondorioz, aurreikusi daiteke ziurtagiria Hezkuntza Sailaren erregistroetan dagoela eta ETZEB-ra bidali zutela informazio ofizial gisa, eta ziurtagiri hori interesatuak eskariarekin batera aurkeztu zuena izan behar da, hau da, ziurtagiri akademiko ofiziala, goiburuan Hezkuntza Sailaren eta Hizkuntza Eskola Ofizialaren izenak dituen, eta bertan jasota dago era berean, 2017-2018 ikasturtean euskararen gaitasun mailan (C1) "gai" kalifikazioa lortu zuela.
9. Gauzak horrela, beharrezkoa da Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak erakunde honetan kexa aurkeztu duen pertsonaren hautagaitza baztertzeko erabilitako arrazoiak aztertzea.

Hasieran, onartutako eta baztertutakoen zerrendan oinarrituz baztertu zen kexagilea, eta arrazoi gisa bakarrik aipatu zuten *"ez zuela egiaztatutako hizkuntza eskakizuna"*.

Ondoren, eta kexagilearen adierazpenekin bat eginez, kudeatzaileak berak emandako informazioarekin egiaztatutakoak, bazterketaren aurka aurkeztu zuen erreklamazioa ezetsi egin zen, esanez, dokumentazioak ez duela zehazten titulua ordaindutako eguna.

Zuzendaritza Batzordearen esanetan, deialdiaren 2.3. atalean (*"Euskara titulua konpultsatutako fotokopia bidez egiaztatuko da, edo, parekatzeko, kopia bat eta haren jatorriko dokumentua aurkeztu beharko da"*) bakarrik titulua hitza





aipatzen da eta ez ziurtagiria hitza, eta beraz, horixe litzateke bazterketa justifikatzeko arrazoia.

Era berean, 2019ko urriaren 7ko ebazpenak ezetsi egin zuen kexagilearen gora jotzeko errekurtsua, adieraziz, kasu horretan, eskariarekin batera aurkeztutako dokumentua ziurtagiri akademiko ofiziala zela baina ez, deialdian aipatutako arauaren ondorioetarako (hau da, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua), titulua edo ziurtagiria, izan ere, tituluak edo ziurtagiriak tasak ordaindu ondoren ematen baitira.

Jarduketa horren inguruan aipatu behar da, kexagileak aurkeztutako dokumentazioarekin bat eginez, prozesuko hainbat jarduketetan emandako informazioan, ez ziotela adierazi zehazki zergatik baztertu zuten prozesutik, eta gora jotzeko errekurtsua ezesten zuen ebazpena jaso arte ez zuela informazio hori jaso, izan ere, aurretik adierazi den moduan, erabaki hori arrazoitzeko aurretik emandako arrazoiek ez zuten inguruabar hori nabarmenki zehazten.

10. Edonola ere, eta eztabaidatzen ari garen gaian sakonduz, aipatu behar da Arartekoa ez dagoela batere ados Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordeak egindako interpretazioarekin, izan ere, deialdiaren hitzez hitzeko interpretazioa eginda ere, ez dago zehaztuta euskararen ezagutza egiaztatzeko balizko titulu bat eskuratzeko eskubideak ordaintzeko betebeharra (Zuzendaritza Batzordeak ulertzen duen moduan), atal horretan aplikatzen baitituzte ohiko moduan prozesuetan parte hartzeko eskatzen diren titulu akademikoak egiaztatzeko aurreikuspenak.

Deialdi honen kasuan, eskubideak ordaintzeko aipamena berariaz jasota dago titulazio akademikoaren atalean (*"Ez dira kontuan hartuko eskatutako tituluen edo eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiriarekin batera bidaltzen ez diren eskubideak."*), baina ez dago jasota euskararen hizkuntza eskakizunaren atalean.

Egia da deialdiaren oinarrietan *"euskara titulazioa"* dagoela jasota, eta baliteke hitz horiek egokienak ez izatea, eta erakunde honen iritziz, ez dira behar besteko zehatzak jakiteko deialdian aurkeztu beharreko dokumentazioa zein zen. Baina hala ere, kontuan hartu behar da edonola ere ez dagoela jasota -eta ezin izango lukete horrelakorik egin- titulua eskuratzeko eskubideak edo tasak ordaindu behar izatea, dudarik gabe, hori ez baita beharrezkoa eta ez baitu zentzurik, Euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan jasotako araubidearekin bat eginez.

Horri dagokionez, Zuzendaritza Batzordeak defendatu duenaren bezalako interpretazioa eginez gero, 297/2010 Dekretuan onetsitako ordenamendua ez da ezagutzen eta albo batera uzten da, izan ere, Dekretuan, elkarrekin baliozkotzen eta bateratzen dira, HEEMB-ren mailekin bat eginez, besteak





beste Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako ziurtagiriak, era berean, ETZEB bezalako erregistroetan jasota daudenak, eta aurretik azaldu den moduan, horixe da euskara ezagutza mailari buruzko informazio ofiziala ematen duen tresna, eta beraz, pertsona horiei, modu ofizialean baita ere, egiaztatutako mailak onartzen zaizkie, bestelako titulurik aurkeztu behar izan gabe edo izapidetze osagarriarik egin behar izan gabe.

11. Bestalde, eta prozedura batean parte hartu nahi duten pertsonak administrazio publikoetan dauden datuak eta dokumentuak ez aurkezteko duten eskubideari buruz esandakoekin bat eginez, azpimarratu behar da, agiri honen beste atal batean jakinarazi den moduan, kexagileak aurkeztutako ziurtagirian kode bat zegoela jasota, eta horren bitartez, ziurtagiriaren egiazkotasuna eta edukia egiaztatzen direla. Beraz, euskara maila egiaztatzearen inguruko zalantzak modu sinplean argitu ahal izango lituzke Haurreskolak.
12. Gainera, aipatu behar da kexagilearen esperientziak egiaztatzen duela, beste administrazio publiko batzuetan ziurtagiria nahikotzat jo zutela euskara ezagutzak egiaztatzeko bestelako betekizun osagarriarik gabe, Zuzendaritza Batzordeak horrek egin ez duen bezala. Besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean (bitarteko funtzionario gisa egon zen lanean ziurtagiri berarekin PL3 hizkuntza profila egiaztatu ondoren), Arabako eta Bizkaiko foru aldundietan, Bilboko Udalean edo Euskal Herriko Unibertsitatean onartu zuten ziurtagiri bera.

Era berean, Hezkuntza Sailean argitaratutako irakasleen hautaketa prozesuetako deialdiak adibide gisa aipatu behar dira. Gutxienez 2016tik aurrera, deialdietan argi eta garbi dago jasota irakasleen lanpostuetako 2. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko, beste titulu eta ziurtagiri batzuen artean, onartuta dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako C1 gaitasun mailaren ziurtagiria (otsailaren 14ko 46/2009 Dekretua), eta horixe da hain zuzen ere kexagileak duen ziurtagiria, ETZEB-ren ziurtagiri ofizialarekin bat eginez. Deialdi horietan aurreikusita dago era berean, erregistroan dauden ziurtagiriak aurkeztea ez dela beharrezkoa.

13. Hori guztia kontuan hartuz, erakunde honek berretsi behar du Zuzendaritza Batzordeak defendatu duen bezalako interpretazio bat, era berean Arartekoan kexa aurkeztu duen pertsonaren hautagaitza baztertzeko arrazoi gisa aipatu dena, ez datorrela bat deialdiko oinarrietan hitzez hitz adierazitakoekin (nahiz eta euskara titulazioa hitzak erabili), eta gainera, kontraesan handia dela euskara ezagutzako titulu eta ziurtagiriak aintzatesteko eta parekatzeko onartutako agindua oinarri hartuz.

Horregatik, erabakia berehala berrikusteko agindua ematen da, albo batera utzi gabe etorkizuneko deialdietan kontuan hartu beharko diren hobekuntzak, besteak beste ETZEB martxan jartzeko helburuei erreferentzia egitean aipatu direnak.





14. Horri dagokionez, erakunde honi emandako erantzunean, Partzuergoaren kudeatzaileak, beste espediente batzuk izapidetzean izandako jarrerarekin jarraituz, honakoak kontrajarri ditu:

“(...) Administrazio Publikoen prozedurari dagokionez ez gara aurkitzen oker materiala, egitezkoak edo aritmetikoaren aurrean, gora jotzeko errekurtsoren ezestekoren ebazpena berrikusteko 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 109.2 artikulua arabera, berrikuspen-errekurtsu bereziaren jartzeko baldintzetan 125.2 artikulua arabera.”

15. Hala ere, kudeatzaileak ez du kontuan hartu 39/2015 Legearen 109.1. artikuluan xedatutako eskumena, berariaz jasotzen duena kargak ezartzen dituzten edo inoren kalterako diren ekintzak aurkaratzeko aukera, betiere aurkaratze hori ez bada legeek onartzen ez duten lekapen edo salbuespena, eta berdintasun printzipioaren, interes publikoaren edo antolamendu juridikoaren aurkako ez baldin bada, kasu honetan bezala.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearen 2019ko urriaren 7ko 01/10-2019 Ebazpena berrikustea gomendatzen da. Ebazpen horren bidez ezetsi zen kexagileak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsua, eta horrez gain, beste ebazpen bat sortzeko gomendioa ematen da, errekurtsua onartzen duena eta administrarien eta teknikarien lan-poltsak irekitzeko prozesuan kexagilearen eskaria onartzen duena, deialdiarekin bat eginez beharrezkoak diren prozedurak gauzatzuz.

